



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko maiatzaren 8a

65. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/CCO-00010. “Atarrabiako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/CCO-00010. “Atarrabiako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin

2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Atarrabiako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea Atarrabiako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzei buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinarren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA

I. SARRERA	4
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA.....	4
III. SALBUESPENDUN IRITZIA.....	4
IV. SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK	5
VI. ATARRABIAKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA.....	5
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK	6
1. GEHIGARRIA. ATARRABIAKO UDALA	7
2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	9
3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	9
3.1. Langileak.....	9
3.2. Kontratazio administratiboa.....	12
3.3. Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak.....	14
3.4. Next Generation funtsak.....	16

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2023ko bere jarduketa-programari jarraikiz, langileen, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloan Atarrabiako Udalari 2022ko ekitaldian aplikatzekoa zaion legeria betetzearen fiskalizazioa egin du.

Landa-lana 2023ko urrian eta azaroan egin zuen auditoria-teknikariz eta auditore batez osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Atarrabiako Udaleko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

Jarduketa horren emaitzak Atarrabiako Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Gure lanaren helburua da iritzia ematea ea honako gai hauei dagokienez Atarrabiako Udalak 2022ko ekitaldian zehar egindako jarduerak bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzekoa den arau-esparruarekin:

- Langileria: alderdi orokorrak, nominetako ordainsarien analisia eta enplegu publikoa egonkortzeko prozesuaren berrikuspena.
- Kontratazio publikoa: munta txikiko araubidezko kontratazioa eta kontratu egokirik gabeko prestazioak.
- Zuzeneko emakidaren araubidezko dirulaguntzak.

Era berean, zenbatu egin ditugu Next Generation Funtsetatik jasotako dirulaguntzak eta horiekin finantzaturiko gastuak, oinarri harturik Udalak helarazi dizkigun datuetan.

Fiskalizazioaren norainokoak barne hartzen ditu txosten honen 3. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketak.

Gure lanaren norainokoak ez du barne hartzen Kirol Martiket 2015 SL udal-sozietate publikoa.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztapenak ere egin dira, beharrezkoak direnak ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

III. SALBUESPENDUN IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion esku-menak erabiliz, legezketasun-fiskalizazioa egin du, Atarrabiako Udalaren 2022ko ekitaldiko langileria, kontratazio administratibo eta dirulaguntzei buruzkoa.

Gure ustez, eta gure lanaren norainokoa aintzat hartuta, gure txostenaren "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azalduetako zertzeladen eraginengatik izan ezik, langileen, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloan aztertutako jarduerak bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

IV. SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA

Langileei dagokienez, honako salbuespen hau aipatu behar dugu:

- Ez da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu (aurrerantzean NAO) “Atarrabiako Udalaren zerbitzura diharduten langileen lan-baldintzei eta hitzarmen kolektiboari buruzko erabakia (2021-2023)”, araudiak ezartzen duenaren kontra.

Kontratazio administratiboari dagokionez, honako salbuespen hauek adierazi behar ditugu:

- 2022ko ekitaldian, kasuko kontratua amaitzeagatik kontratu-euskarri egokirik gabe emandako zerbitzuengatik 237.052 euroko gastuak aitortu dira, zeinak bost hornitzailei ordaindu baitzaizkie txosten honetako 3.2. gehigarrian adierazitako zerbitzu eta hornidurengatik.

- Munta txikiko kontratu gisa izapideturiko prestazioetan 583.996 euroko gastua egin da, 16 kontratistari ordaindutakoa, txosten honetako 3.2. gehigarrian adierazitako zerbitzu, hornidura eta obrenengatik.

Egin dugun fiskalizazioa kanpo-kontrolako erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraitzen zaie; eta, zehazkiago, ISSAI-ES 400 arauari, zeina legezkotasuna betetzei buruzko fiskalizazioei buruzkoa baita. Halaber jarraitzen zaie kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikoei. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko “Kon-tuen Ganberaren erantzukizunak” atalean hain zuzen ere.

Entitate fiskalizatuarekiko independenteak gara, hala behartzen dute-eta legeriaren betetzei buruzko gure fiskalizazioari aplikatzekoak zaizkion eskakizun etikoek eta independentzia babeste-koek, bai eta fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak ere.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du gure iritzi salbuespenduna emateko.

V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarriak dira legezkotasuna betetzei buruzko gure fiskalizazioan gure iritzi profesionalaren arabera esanguratsuak izan diren horiek. Auzi horiek jorratu ditugu egin dugun fiskalizazioaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

Txosten honetako “Salbuespendun iritziaren oinarria” atalean azaldutako alderdiak salbu, ez dugu jakinarazten gure fiskalizazioan giltzarritzat jotako inolako gorabeherarik.

VI. ATARRABIAKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Atarrabiako Udalaren Idazkaritzak eta Kontu-hartzaitzak bermatu behar dute fiskalizatutako arloetako jarduerak bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Era berean, Udalaren erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatuko dutenak egindako jardueran ez dagoela ezer legez kanpokorik.

VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburua bikoitza da. Alde batetik, zentzutasunezko segurtasun bat lortzea ez-betetze esanguratsurik ez egoteaz fiskalizatutako gaitan Udalak 2022ko ekitaldian egindako jardueretan; eta, bestetik, betetzeari buruzko fiskalizazio-txosten bat jaulkitzea, gure iritzia jasotzen duena.

Zentzutasunezko ziurtasuna ziurtasun maila handia da, baina horrek ez du bermatzen fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti harrapatuko duenik ez-betetze esanguratsu bat, halakorik egonez gero. Ez-betetzeak iruzur edo akatsen ondorio izan daitezke, eta materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Kanpo kontroleko organoen fiskalizazio-jarduerari buruzko araudiari jarraituz eginiko fiskalizazio baten atal gisa, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko ez-betetze muntazkoetarako arriskuak identifikatu eta baloratzeko, auditoretza-prozedurak diseinatu eta aplikatu ditugu, horiei erantzuteko, eta auditoretza-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia oinarria emateko. Ez-betetze esanguratsu bat iruzurraren ondoriozkoa denean, hori ez detektatzearren arriskua handiagoa da errearen ondoriozkoa denean baino; izan ere, iruzurraren osagai izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, apropos eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Fiskalizaziorako muntaduna den ezagutza lortzen dugu barne-kontrolatik, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko aldera; ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.

- Ebaluatzen dugu prozedurak egokiak diren, bai eta kudeaketa-organok emandako informazioaren arrazoizkotasuna ere.

Entitateko gobernu-organorekin harremanetan aritzen gara gai hauen inguruan, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta haiek egiteko unea, fiskalizazioan aurkitutako gorabehera adierazgarriak, bai eta fiskalizazioan zehar identifikatzen ahal dugun barne-kontrolako edozein gabezia esanguratsu ere. Entitatearen gobernu-organuari jakinarazi zaizkion gorabeheren artean, zehazten dugu zein izan diren betetzearren fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzaren gai giltzarriak.

VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Langileria, kontratazioari eta dirulaguntzei buruz eginiko betetze-fiskalizazioko lanaren emaitza gisa, Ganbera honek gomendatzen du:

- *NAOn argitaratzea "Atarrabiako Udalaren zerbitzuko langileen lan-baldintzei eta hitzarmen kolektiboari buruzko erabakia (2021-2023)".*

- *Kontratu-lizitazio prozedura egokia izapidetzea halako prestazioetarako non balio zenbatesiak gainditu egiten baititu munta txikiko kontratu etarako ezarritako mugak.*

- *Kontratazio administratiboko prozeduretan denbora-plangintza egokia ezartzea, haien gehieneko indarraldia gainditu ez dadin.*

Beste gomendio batzuk jaso ditugu 3. gehigarrian, fiskalizazioko beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, jaulkitzen da lan honen arduradun izandako Asunción Olaechea Estanga auditoreak proposatuta.

Iruñean, 2024ko otsailaren 9an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. ATARRABIako UDALA

Atarrabiako udalerria Iruñerrian dago, Iruñeko merindadean, eta hiribildu-kategoria du. 1,1 km²-ko azalera du, eta 10.022 biztanle zeuzkan 2022ko urtarrilaren 1ean.

Udal antolamendua besteak beste honako organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkura (17 kide), Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza. 13 batzorde eratu dira (kontuen batzorde berezia barne).

Udalak Kirol Martiket 2015 SL sozietate publikoa sortu zuen 2015ean, kirol-instalazioak kudeatzeko.

2022ko ekitaldia ixtean, udalaren eta udal-sozietatearen datu ekonomiko nagusiak honako hauek ziren:

- Udala:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, abenduaren 31n
Udala	9.188.381	10.815.719	113

- Kirol Martiket SL sozietate publikoa:

Sozietate publikoa	Negozio-zifra garbia	Ekitaldiko emaitza	Udalaren diru-laguntzak	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Batez besteko plantilla (2022)
Kirol Martiket 2015 SL	1.125.821	-3.217	0	26.198	11.012	50

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sartuta dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen bilketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Mankomunitatearen alde eskualde-garraioko aitortutako gastua 258.158 eurokoa izan da 2022an.

Udala "Hilarión Eslava" Partzuergoaren kidea da, Burlatako eta Atarrabiako Udalek osatua Hilarión Eslava Musika Eskola kudeatzeko. 2022ko ekitaldian, Udalaren ekarpena 159.308 eurokoa izan zen gastu arruntetarako, eta 2.518 eurokoa, inbertsioetarako.

Udalak emandako informazioaren arabera, Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa		Zeharkako kudeaketa	Mankomunitatea
	Udala	Enpresa publikoa	Zerbitzu-kontrata	
Argiteria publikoa	X			
Hilerria	X			
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea				X
Kale-garbiketa	X			
Uraren ziklo integrala				X
Estolderia				X
Parke publikoa	X			
Liburutegia-ludoteka	X			
Gizarte zerbitzuak	X			
Kirol instalazioak		X		
Bidaiarientzako hiri barruko garraio kolektiboa				X
Hirigintza*	X		X	
Udaltzaingoa	X			
Ingurumena	X		X	
Kulturaren eta kultur ekipamenduen sustapena			X	
Ikastetxe publikoak mantentzea	X			
Berdintasunaren sustapena	X			
Merkataritza ibiltaria	X			
0-3 urtekoen ikastetxeak	X			

*Udalak hitzarmen bat du Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoarekin, zenbait hirigintza-zerbitzu emateko.

2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparru nagusia honako hau da:

Estatuko araudia

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

Foru araudia eta tokikoa

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- Aurrekontu-exekuzioko oinarriak.
- Ordenantzak.

3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat gehitu ditugu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

3.1. LANGILEAK

Udalaren langile-gastuak 5,78 milioikoak izan ziren, ekitaldian sortutako gastu guztien % 53.

Honako taula honetan ematen da gastu horren xehakapena:

Kontzeptu ekonomikoa	ABG, 2022
Gobernu-organoen ordainsariak	142.095
Langile funtzionarioen ordainsariak	1.498.726
Aldi baterako lan-kontratudun diren langileen ordainsariak	2.358.672
Gizarte-kuotak	1.757.372
Langileen gizarte-gastuak	27.323
Guztira	5.784.188

Plantilla organikoa

2022ko plantilla organikoari hasierako onespina 2022ko otsailaren 24an eman zitzaion. Plantilla 2022ko maiatzaren 16an argitaratu zen NAO-n, eta 2022ko ekitaldian zehar horren bi aldaketa onetsi ziren. Plantillaren eta aldaketen behin betiko onespina, Ganbera honek eskatuta, 2023ko abenduaren 26ko NAO-n argitaratu ziren.

2022ko plantillaren eta horren aldaketen arabera, honako hauek dira lanpostuak:

Sailkapena	Lanpostuak
Langile funtzionarioak	52
Lan-kontratadunak	67
Guztira	119

Plantillako lanpostuetatik, ehuneko 56 lan-araubidekoak dira, eta ehuneko 44, funtzionario-araubidekoak.

Honako hau zen lanpostuen egoera 2022ko abenduaren 31n:

Lanpostuak	(2022)
Plantillako lanpostuak	119
Beteta	55
Hutsik	64
Lanpostu hutsen % lanpostu guztien gainean	54
Bete diren lanpostu hutsak	59
Bete diren lanpostu hutsak (%)	92
Bete gabeko lanpostu hutsak	5
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	8

2022ko abenduaren 31n, plantillako lanpostu guztien ehuneko 54 hutsik zeuden; horietatik, ehuneko 92 estalita zeuden, eta gainerakoak, ehuneko zortzi, artean estali gabe.

Datu horien arabera, 2022ko abenduaren 31n, langileen behin-behinekotasunaren indizea ehuneko 52 da, kalkulatu aaldi baterako betetako lanpostuen eta behin betiko nahiz behin-behinean betetako lanpostu guztien arteko zatidura gisa.

Enplegu publikoaren egonkortzea

Enplegu publikoaren egonkortze prozesua aztertu dugu aintzat harturik zer betekizun eta epe ezartzen diren uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean, Enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premia neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurri buruzkoan. Osoko Bilkurak 2022ko irailaren 27an erabaki zuen partzialki atxikitzea aipatu uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluaren aplikazioari.

Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Udalaren Osoko Bilkurak, 2022ko maiatzaren 10ean, aldi baterako enplegua egonkortzeko enplegu-eskaintza publiko bat (EEP), 31 postukoa, onetsi zuen, zeina argitaratu baitzen 2022ko maiatzaren 17ko NAO-n; hots, EEPa onesteko eta argitaratzeko 2022ko ekainaren 1erainoko epe legalaren barruan.

- EEPko 31 lanpostu horietatik, 25 sartuta daude merezimendu-lehiaketako hautaketa-sisteman, eta sei, oposizio-lehiaketako sisteman.

- Eskaintako lanpostuen % 13ko lagin baterako egiaztatu dugu ezarritako betekizunak betetzen dituztela, eta lanpostu-betetze modua araudiarekin bat datorrela.
- Lanpostu horiek guztiak betetzeko deialdiak 2022ko azaroaren 14ko eta 28ko NAO-n argitaratu ziren, araudiarekin bat, zeinak epemugatzat ezartzen baitzuen 2022ko abenduaren 31.
- Txosten hau idazteko garaian, deitutako lanpostuetarako hautapen-prozesuek amaitu gabe dira.

Hautapen-prozesu horiek 2024ko abenduaren 31 baino lehen ebatzi beharko dira, data horretan bete beharrekoa baita legez aurreikusitako helburua, aldi baterako kontratuak egiturazko lanpostuen ehuneko 8ra murriztearena.

- 2022ko ekitaldian zehar, lau salaketa jarri ziren gizarte-arloko jurisdikzioan, langile mugagabe ez-finkoaren izaera aitortzeko eskatzeko. Kasu batean, epaiak izaera hori aitortu zuen; bi kasutan, prozedura etenik dago aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesua ebatzi arte; eta laugarren kasuan epaiaren zain daude.

Langileria-gastuari buruzko egiaztapenak

Aztertu dugu 143 pertsonaren 2022ko urriko nominaren ordainsari-kontzeptuen lagin bat, 222.894 euroko zenbatekoa duena eta hilabete horretan pagatutako ordainsarien ehuneko 73 egiten duena. Honako hauek izan dira berrikusitako ordainsariak eta haien zenbatekoak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Hasierako maila-soldata	136.482
Gradua	21.120
Antzintasuna	4.476
Lanpostuko osagarria	29.386
Mailako osagarria	10.775
Berriarazko osagarria	9.654
Arrisku bereziko osagarria	3.563
Zuzendaritza-lanpostuko osagarria	3.166
Parekatze-osagarria	1.509
Arduraldi eskusiboko osagarria	1.412
Lanaldi-luzapeneko osagarria	747
Bateraezintasun-osagarria	605
Guztira	222.895

Egiaztatu dugunez, urriko nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptuak bat datoz, oro har, plantilla organikoaren arabera betetzen dituzten lanpostuetarako aurreikusitakoekin, baita udalak antzintasunaren eta graduaren kasuan adierazi digun zerbitzuen aintzatespen-datarekin ere, honako gabezia hauengatik izan ezik:

- Ehuneko ehun baino gutxiagoko lanaldi efektiboa duten lanpostuetan, lanaldi osoari dagokion antzintasuna ordaintzen da. Egoera horrek 11 langileri eragiten die, eta bidegabe ordaindutako 3.603 euroko urteko zenbatekoa dakar. Horri dagokionez, alkatearen 2024ko urtarrilaren 23ko ebazpenaren bidez antzintasunagatiko ordainsaria kalkulatzeko prozedura halako moldez zuzendu da non lanaldi eginarekiko modu proportzionalean ordainduko baita, eta ukitutako langileei eskatu zaie bidegabe ordaindutako zenbatekoak itzultzeko.
- Herritarren arretarako bulegoaren arduradun-lanpostua A mailako gisa ageri da plantilla organikoan, baina B mailako ordainsaria du, gehi A mailarekin parekatzeko osagarri bat, harik eta oposizio-lehiaketa murriztu bat egin arte. Egoera hori 2014tikoa da.

Gomendatzen da egin dadila herritarren arretarako bulegoaren arduradun-lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketa murrizturako deialdia.

3.2 KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA

2022ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatiko gastu arruntak 2,45 milioikoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 23 egiten dute.

2022ko gastua honela banatzen da, atal ekonomikoaren arabera:

Atala	Aitortutako betebeharrak (2022)
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	390.629
Materialak, hornidurak eta beste batzuk	2.021.159
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	727
Argitalpen-gastuak	30.769
Entitate publikoek eginiko lanak	6.118
Guztira	2.449.4022.449.402

2022ko ekitaldian egindako inbertsioek 1,31 milioi euro egin zuten. Ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 12 egiten dute. Hona zehaztapena, kontzeptu ekonomikoen arabera:

Kontzeptu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak (2022)
Eraikin publikoen birgaitzea bultzatzeko programa, erretirodunen elkarteak 1. Ildoa; Atargi ikastetxea 2. ildoa, hiriko artea	29.954
Foru plazaren urbanizazioa	293.206
Ikastetxeetan egindako inbertsioak	180.946
Plaka fotovoltaikoak	58.824
Agenda 21eko inbertsioak	53.937
Hiri altzariak	18.602
Abiadura murrizteko gailuak	16.940
Haur-parkea estaltzea	2.789
Ardantzea aterpe klimatikoa eta jasangarria	117.493
Inbertsioak kirol-instalazioetan	395.719
Kirol- ekipamenduak	10.700
Ibilgailu elektrikoa eta traktore soropil-mozlea	47.654
Birziklatze-paperontziak	8.184
Informazio prozesuetarako ekipamenduak	34.591
Argazki-artxiboaren digitalizazioa	3.025
Herritarren proiektuak	40.690
Guztira	1.313.254

Gure lanean aztertu egin ditugu munta txikiko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko zerbitzu, hornidura eta obren prestazioak, zeinak zenbatuta baitaude ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunten kapituluan eta inbertsioen kapituluan.

Hurrengo taulan adierazten da ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunten xehakapena zenbateko-tartearen arabera, bai eta aztertutako lagina ere.

Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan	Hornitzaile kopurua	Gastua, guztira	Hornitzaile kopurua	Aztertutako gastua
Handiagoa 15.000 euro gehi BEZa baino	24	1.205.540	24	1.205.540
3.750 euro eta 15.000 euro artean (gehi BEZa)	80	668.697	16	168.884
Txikiagoa 3.750 euro gehi BEZa baino	500	575.165		
Guztira	604	2.449.4022.449.402	40	1.373.424

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunten guztizkoaren ehuneko 56 egiten duen lagin bat aztertu dugu, kapitulu horretako gastuen hornitzaile guztien ehuneko zazpiti dagokiona.

Inbertsioen xehakapena honako hau da, zenbatekoaren arabera eta kontuan hartuta inbertsioak adjudikatzeko lizitazio-prozedura bat izapidetu ote zen, munta txikiko kontratuen araubide bereziko prozeduraz bestelakoa. Azterturiko lagina ere agertzen da:

Inbertsioak	Kontrata- tista-kop.	Gastua, guztira	Aztertutako gastua	Kontrata- tista- kop.
Handiagoa 40.000 euro gehi BEZa baino	3	631.632	215.324	1
15.000 euro eta 40.000 euro artean (gehi BEZa)	15	410.560	278.547	11
Txikiagoa 15.000 euro gehi BEZa baino	63	271.062		
Guztira	81	1.313.254	493.871	12
Lizitazio-prozedura duten prestazioak	6	548.321		
Munta txikiko kontratuetarako araubide bere- ziko prestazioak	75	764.933	493.871	12
Guztira	81	1.313.254	493.871	12

Lagin bat aztertu dugu, kasuan kasuko lizitazio-prozedura izapidetu gabe adjudikatutako inbertsioen zenbatekoaren ehuneko 65 egiten duena.

Munta txikiko kontratazioa

Udalak Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu ditu, hiru hilean behin, 2022ko ekitaldian munta txikiko kontratuetarako araubide bereziaren bidez izapidetutako adjudikazioak.

Egiaztatu dugunez, munta txikiko kontratu gisa izapidetu dira prestazio batzuk, haien urteko zenbatekoak 15.000 euro gehi BEZa gaintitzen ez badu ere beharrian iraunkorrei erantzuten di-etenak. Halaber, badira hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, zenbateko hori gaintitzen duten arren kasuko lizitazio-prozedura aplikatu ez zaienak. Guztira 511.930 euro egiten dute, eta 15 hornitzaile-ri ordaindu zaizkie honako zerbitzu eta hornidura hauen truke:

Xedea	Hornitzaile kopurua	Gastua, guztira (2022)
Energia elektrikoa: argiteria publikoa eta eraikinak	4	205.900
Udal aseguruak	3	112.063
Eraikinetarako gasa	2	94.290
Ikuskizunetako aparatu teknikoak	1	26.559
Telefonia	1	19.322
Jaietako garbiketa	1	16.363
Hirigintza arloko aholkularitza	1	14.934
Haur-eskolako elikadura	1	13.931
Etxeko laguntza-zerbitzuko ikuztegia	1	8.568
Guztira	15	511.930

Inbertsioen kapituluan, aztertu dugun 13 kontratatista laginean, guztira 493.871 euro egiten duena, egiaztatu dugu ondo izapidetu direla munta txikiko kontratu gisa. Igerileku-hondartzako zoladura-obra da salbuespena, bi fakturatan izapidetu baitzen, munta txikiko kontratu baten bidez. Faktura horietako bat eraispenarena zen, 24.886 eurokoa (BEZa barne); eta bestea, zoladura aldatzekoa, 47.180 eurokoa (BEZa barne). Beraz, obra horrek gaintitu egiten du Kontratu publikoari buruzko Foru Legeak prozedura horretarako ezartzen duen muga, 40.000 euro gehi BEZekoa.

Kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak

Udalak guztira 237.052 euro ordaindu zituen 2022an, 2022ko abenduaren 31n mugaegunera-tutako bost kontratu hauei dagozkien prestazioengatik, horiek berriro lizitatu ez izana justifikatzen duen arrazoirik gabe:

Kontratuaren xedea	2022an ordaindu-tako gastua	Kontratuaren amaie-ratik 2022-12-31ra arte metatutako gastua	Kontratuaren amaiera-data	Adjudika-zio-data
Gazte-zentroaren kudeaketa	109.252	438.993	2018/12/31	2023ko ekaina
Kultur jardueren programazioa	97.556	167.390	2021/03/01	
Toki-informazioko aldizkariaren diseinu grafikoa, prestaketa eta idazketa	16.015	16.015	2022/07/19	
Laneko arriskuen prebentziorako zerbitzua	9.145	9.145	2022/01/09	
Hirigintza arloko aholkularitza	5.084	5.084	2022/10/10	
Guztira	237.052	636.627	636.627	

Kontu-hartzaitzak ez zuen adierazi kontratazio administratiboan izandako gabeziengatik eragozpenik.

3.3 TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIETAKO GASTUAK

2022an, Udalak 978.280 euro transferentzia arruntetan eta 2.518 euro kapital-transferentzietan eman zizkien honako entitate hauei:

Entitateak	Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak
Foru Komunitateko erakunde autonomoak	28.068	
Foru Komunitateko fundazioak	3.000	
Mankomunitateak	258.158	
Tradiziozko elkarteak	3.473	
Enpresa pribatuak	105.000	
Familiak	255.230	
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	230.483	2.518
Beste batzuk	94.867	
Guztira	978.279	2.518

Dirulaguntza-plan estrategikoa

Ez zen onetsi 2022ko ekitaldirako dirulaguntza-plan estrategikoa.

2023ko martxoaren 30ean, Osoko Bilkurak dirulaguntza-plan estrategikoa bat onetsi zuen 2023-2025 aldirako.

Dirulaguntza-lagin baten azterketa

Udalak emandako informazioaren arabera, 107.810 euro eman zizkien, dirulaguntza izendunetan, 13 onuraduni, jarraian zehazten denez:

Onuraduna	Behin betiko kreditua	Emandako kopurua
Manuela Project	30.000	30.000
Beti Onak emakumezkoen eskubaloia	20.000	20.000
"Geuretik sortua" egonaldi artistikoa	7.986	7.986
Erretirodunen San Andres elkarte	7.909	7.909
Karrikaluze	7.800	7.800
Etxe Beltza Atarrabiako eguna	7.588	7.588
Etxe Beltza inauteria eta Olentzero	6.902	6.902
Ika gau-eskola	6.500	6.500
"La Indurain" probaren babesletza	4.000	0
Erregeen desfilerako elkarte	3.900	3.900
Jaiotzen eta Gabon-kanten elkarte	3.636	2.182
Remonte fundazioa	3.000	3.000
Rellenoaren kofradia	2.668	2.668
Scout taldea	2.291	1.375
Mandrake elkarte	2.000	0
P. de Axular kooperatiba, xake-txapelketa	564	0
Nafarroako ondarea babesteko plataforma	500	0
Guztira	117.244	107.810

Honako lagin hau aztertu dugu, emandako dirulaguntza izendunen ehuneko 61 egiten duena:

Onuraduna	Gastua (2022)
Manuela Project	30.000
Beti Onak emakumezkoen eskubaloia	20.000
Erretirodunen San Andres elkarte	7.909
Karrikaluze	7.800
Aztertutakoa, guztira	65.709

Aurreko azterketan egiaztatu dugunez, oro har, aztertutako dirulaguntzen ematea, justifikazioa eta ordainketa aplikatzekoa den araudiarekin bat egin da, eta onetsita eta zuzen kontabilizatuta daude.

Dena den, gabezia hauek ikusten ditugu:

- Azterturiko dirulaguntzen ematea ez da argitaratu Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean.
- Ez da agertzen kontu-hartzaitzaren fiskalizaziorik.
- Emakumezkoen eskubaloiko Beti Onak taldeari 2022an emandako dirulaguntza ez zen hitzarmen bidez edo emateari buruzko ebazpen bidez arautu, araudiak ezartzen duenaren kontra. 2023an emandako dirulaguntza Udalaren eta kirol-klubaren arteko hitzarmen baten bidez arautu zen.
- Karrikaluzeri emandako dirulaguntza justifikatzeko, fakturak aurkeztu dira, baina ez ordainketa-egiaztagiriak, hitzarmenak ezartzen duenaren kontra.

Gure aholkuak:

- *Dirulaguntza izendunen ematea Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.*
- *Kontu-hartzaitzak barne-kontrola egin dezala emandako dirulaguntza izendunez denaz bezainbatean*
- *Eskatzea emandako dirulaguntzak justifikatzeko gastuen ordainketak aurkez daitezela, hartzarmen arauemailean ezarritakoaren arabera.*

3.4 NEXT GENERATION FUNTSAK

Europar Batasunak estatu kideen multzoari baliabideak bideratzea erabaki zuen, Next Generation funtsen bitartez, COVID-19aren pandemiaren eragina samurtzeko eta ekonomiaren suspertze-ari bultzada emateko.

2023an, Foru Administrazioak Next Generation funtsetatik 9.162 euroko dirulaguntza eman zion Udalari, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren modernizazio digitalerako 12.680 euroko gastuak finantzatzeko. 2020tik 2022rako aldian exekutatu zen, honako kontzeptu hauetarako:

Kontzeptua	Gastua (2020)	Gastua (2021)	Gastua (2022)
Telefonoak	1.165	485	
Ekipo informatikoak			11.030